Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko irailaren 4a, ostirala — 169 — Viernes, a 4 de septiembre de 2015



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, LANDA INGURUNEKO ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA

*77/2015 FORU AGINDUA, irailaren 2koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko hamabi alderdi zainpeko ehiza-eremu deklaratzen dituena.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoan ehiza oso hedatua dago; ehiztari kopurua begiratu besterik ez dago horretaz jabetzeko.

Gipuzkoan ehiza larriaren inguruan basurdearen ehiza izan da ohikoa, baina orkatzaren ehiza gero eta garrantzi gehiago hartzen ari da, bere populazioen igoerarekin lotuta.

Azken urteotan, bi espeziei horien dentsitateak gora doaz Gipuzkoan, inguruko lurraldetan bezala. Egoera horrek ehiza-kudeaketa egoki bat edukitzeko beharra dakar, populazioak erregulatzeko eta sor ditzaketen kalteak kontrolatzeko.

Hori dena dela eta, kontuan hartuta espezie hauen ehizaren berezitasuna, 2004. urtean, uztailaren 16ko Foru Aginduaren bitartez, hamabi zainpeko ehiza-eremu izendatu ziren, eta ehiza larriaren aprobetxamendua erregulatzeko eta baliatzeko plan bat ezarri zen, ehizaren aprobetxamendu horri erregimen berezi bat ezartzeko eta horrela erabilera sozialaren eta ehiza lekuetako interes pribatuen artean oreka lortu ahal izateko.

Urteotan egiaztatu egin da deklaratu ziren zainpeko ehiza-eremuen funtzionamendu egokia. Horretan oinarrituta, Gipuzkoan ehiza larriaren kudeaketa gure lurraldearen ezaugarriei eta dauden ehiza-espezieen egoerari egokitu egin da. Urte horietan ezarritako kudeaketari esker, espezie horiek nekazaritzan eta basogintzan sortzen dituzten kalteen kudeaketa eraginkorra aurrera eramatea lortu da.

Hamabi zainpeko ehiza-eremuak izendatu zirenetik hamar urte igaro eta gero, eta haien indarraldia amaitua dagoenez, beharrezkoa ikusten da ehiza-kudeaketa ildo horri eustea. Horretarako, dena den, ezinbestekoa da indarrean dagoen araudira egokitzea.

Horiek horrela, martxoaren 17ko 2/2011 Euskadiko Ehiza Legearen 15. artikuluan eta 1970eko apirilaren 4ko Ehiza Legearen Erregelamenduko 16. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta 2015eko uztailaren 22an bildutako Ehizaren Lurralde Kontseiluari entzun ondoren, foru diputatu honek ondorengoa xedatu du:

*Lehenengo.*

Foru agindu honekin batera doan eranskinean zerrendatzen diren hamabi tokien Ehiza antolatzeko Plan Teknikoak onartzea eta toki horiek zainpeko ehiza-eremu deklaratzea.

*Bigarren.*

Alderdi horietan erregulatuko den ehiza jarduera ehiza larriarena izango da.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, MEDIO RURAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

*ORDEN FORAL 77/2015, de 2 de septiembre, para la declaración de doce zonas de caza controlada en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

La actividad cinegética en el Territorio Histórico de Gipuzkoa es de una gran importancia social, tal y como se refleja en la existencia de un elevado número de cazadores.

Tradicionalmente, la caza mayor ha consistido en la explotación cinegética del jabalí, si bien la caza del corzo va cobrando mayor importancia.

En los últimos años se observa que las densidades de ambas especies han ido aumentando en Gipuzkoa, al igual que en los territorios limítrofes. Esta situación obliga a llevar una gestión cinegética adecuada, capaz de regular las poblaciones y de controlar los daños que estas puedan producir.

Por todo ello, dada la especificidad de la caza de estas especies, en el año 2004, mediante la Orden Foral de 16 de julio, se declararon doce zonas de caza controlada y se estableció un plan de regulación y disfrute del aprovechamiento de la caza mayor, a los efectos de dotar a este aprovechamiento cinegético de un régimen especial que permita armonizar el uso social de la caza con los intereses privados existentes en los lugares de caza.

En estos años se ha constatado el buen funcionamiento de las zonas de caza controlada declaradas, lo que ha permitido llevar una gestión de la caza mayor en Gipuzkoa adaptada a las características de nuestro territorio y a la situación de las poblaciones de las especies cinegéticas existentes. A lo largo de estos años se ha conseguido, gracias a la gestión establecida, llevar adelante una gestión eficaz de los daños que causan estas especies en la agricultura y en las explotaciones forestales.

Transcurridos diez años desde que fueran declaradas las doce zonas de caza controlada, y finalizado su periodo de vigencia, resulta necesario continuar con la línea de gestión cinegética establecida, adecuándola a la legislación vigente.

Por todo ello, teniendo en cuenta lo dispuesto en los artículos 15 de la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza de Euskadi, y 16 del Reglamento de la Ley de Caza de 4 de abril de 1970, y oído el Consejo Territorial de Caza de Gipuzkoa en su sesión de 22 de julio de 2015, esta Diputada Foral ha dispuesto:

*Primero.*

Aprobar los Planes de Ordenación Cinegética de las doce zonas relacionadas en el anexo de esta Orden Foral, las cuales se declaran sometidas a régimen de caza controlada.

*Segundo.*

La modalidad de actividad cinegética regulada en dichas zonas será la de caza mayor.

EK\CV GAO-I-2015-07804

*Hirugarren.*

Hamabi alderdi horien deskribapena eta muga geografikoak Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuaren Basanimalien eta Landareen Zerbitzuaren espedientean dauden planoetan zehaztutakoak dira.

*Laugarren.*

Zainpeko ehiza-eremuek, gehienez, hamar urteko indarraldia izango dute. Denbora hori igarota, iraungi egingo dira, ez badira beren-beregi berritzen.

*Bosgarren.*

Zainpeko ehiza-eremuen kudeaketa entitate laguntzaile bati esleituko zaio eta kudeaketa hori irabazi asmorik gabekoa izango da.

*Azken xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Donostia, 2015eko irailaren 2a.—Ainhoa Aizpuru Murua, foru diputatua. (7804)

ERANSKINA

*1. Debabarreneko zainpeko ehiza-eremua.*

Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Mutriku udalerrietako lurrak dira. Muga hauek ditu: Iparraldean, Kantauri itsasoa; Mendebaldean, Bizkaia; eta gainerako aldeetan, Urola Kostako, Urola Erdiko eta Debagoieneko zainpeko ehiza-eremuak. Ehizalekua A-8 autobideak eta Deba ibaiak zeharkatzen dute.

Bere mugen barruan daude Kontserbazio Bereziko Eremua ES2120001Arno, Deba-Zumaia itsasertzeko Biotopo Babestuaren zati bat eta Kontserbazio Bereziko Eremua ES 2120003 Izarraitz.

*2. Urola Kostako zainpeko ehiza-eremua.*

Aduna, Aia, Aizarnazabal, Asteasu, Errezil, Getaria, Larraul, Orio, Usurbil, Zarautz, Zestoa, Zizurkil eta Zumaia udalerrietako lurrak dira. Muga hauek ditu: Iparraldean, Kantauri itsasoa; Ekialdean, Donostialdeko zainpeko ehiza-eremua; Hegoaldean, Tolosaldeko eta Urola Erdiko zainpeko ehiza-eremuak; Mendebaldean, Debabarreneko zainpeko ehiza-eremua. Ehiza-lekuan barrena pasatzen dira A-8 autobidea, Urola ibaia mendebaldeko muturretik, eta Oria ibaia iparraldekotik.

Bere mugen barruan daude Pagoetako Parke Natural aeta Iñurritzako Biotopo Babestua, Deba-Zumaia itsasertzeko Biotopo Babestuaren zati bat, ES 2120004 Urolako Itsasadarra/Ría del Urola, ES 2120007 Garate-Santa Barbara, ES 2120009 Iñurritza eta ES 2120010 Oriako Itsasadarra/Ría del Oria Kontserbazio Bereziko Eremuak, eta, halaber, ES2120008 Ernio-Gatzume KBE.

*3. Donostialdeko zainpeko ehiza-eremua.*

Astigarraga, Hernani, Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria eta Donostia (Zubieta, Oberan eta Landarbaso barne), Berastegi (Eldua), Donostia (Zubieta, Oberan eta Landarbaso barne) udalerrietako lurrak dira. Muga hauek ditu: Iparraldean, Kantauri itsasoa; Ekialdean, Nafarroa eta Bidasoa-Oarsoaldeko zainpeko ehiza-eremua; Hegoaldean, Tolosaldeko zainpeko ehiza-eremua Zainpeko ehiza-eremu hau A-8 autobiak eta N-1 errepideak zeharkatzen dute, eta ehiza-lekuan barrena Oria eta Urumea ibaiak pasatzen dira.

Bere mugen barruan daude Aiako Harria Parke Naturalaren zati bat eta Leitzarango Biotopo Babestua; 2120016Aiako Harria, ES2120014 Ulia, ES 2120013 Leitzaran Ibaia/Río Leitzaran y ES 2120015 Urumea Ibaia/Río Urumea Kontserbazio Bereziko Eremuak; Donostiko, Goiburuko (Andoain) eta Santiomendiko (Astigarraga) Segurtasun esparruak; eta Erkaitz-Aparrain-Sarobe fauna Babeslekuak.

*Tercero.*

La descripción de dichas zonas y sus límites geográficos se hallan detallados en los planos obrantes en el expediente del Servicio de Fauna y Flora Silvestre del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial.

*Cuarto.*

Las zonas de caza controlada tendrán una vigencia máxima de diez años, tras los cuales se extinguirán si no se renuevan de forma expresa.

*Quinto.*

Las zonas de caza controlada serán gestionadas, sin ánimo de lucro, por la entidad colaboradora a la que se adjudique dicha gestión.

*Disposición Final.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 2 de septiembre de 2015.—La diputada foral, Ainhoa Aizpuru Murua. (7804)

ANEXO

*1. Zona de caza controlada de Bajo Deba.*

Terrenos pertenecientes a los términos municipales de Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro y Mutriku. Limita al Norte con el Mar Cantábrico, al Oeste con Bizkaia y con las Zonas de Caza Controlada de Urola Costa, Urola Medio y Alto Deba en las demás orientaciones; es atravesada por la autopista A-8 y el río Deba.

Dentro de sus límites se localizan la Zona Especial de Conservación ES 2120001Arno, parte del Biotopo Protegido del tramo litoral Deba - Zumaia y parte de la Zona Especial de Conservación ES 2120003 Izarraitz.

*2. Zona de caza controlada de Urola Costa.*

Terrenos pertenecientes a los términos municipales de Aduna, Aia, Aizarnazabal, Asteasu, Errezil, Getaria, Larraul, Orio, Usurbil, Zarautz, Zestoa, Zizurkil y Zumaia. Limita al Norte con el Mar Cantábrico; al Este con la Zona de Caza Controlada de Donostialdea; al Sur con las de Tolosaldea y Urola Medio; y al Oeste con la Zona de Caza Controlada de Bajo Deba. Es atravesada por la autopista A-8, el río Urola discurre por su extremo occidental y el Oria por el septentrional.

Dentro de sus límites se sitúan el Parque Natural de Pagoeta y el Biotopo Protegido de Iñurritza, parte del Biotopo Protegido del tramo litoral Deba - Zumaia; las Zonas Especiales de Conservación ES 2120004 Urolako Itsasadarra/Ría del Urola, ES 2120007 Garate-Santa Barbara, ES 2120009 Iñurritza y ES 2120010 Oriako Itsasadarra/Ría del Oria, así como parte de la ZEC ES 2120008 Ernio-Gatzume.

*3. Zona de caza controlada de Donostialdea.*

Terrenos pertenecientes a los términos municipales de Astigarraga, Hernani, Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria y San Sebastián (incluidos Zubieta, Oberan y Landarbaso). Limita al Norte con el mar Cantábrico; al Este con Navarra y la Zona de Caza Controlada de Bidasoa-Oarsoaldea; al Sur con la Zona de Caza Controlada de Tolosaldea. Es atravesada por la autopista AP-8 y la carretera N-1, y por su interior discurren los ríos Oria y Urumea.

Dentro de sus límites se sitúa parte del Parque Natural de Aiako Harria, y del Biotopo Protegido del Río Leitzaran; las Zonas Especiales de Conservación ES 2120016Aiako Harria, ES2120014 Ulia, ES 2120013 Leitzaran Ibaia/Río Leitzaran y ES 2120015 Urumea Ibaia/Río Urumea; las Zonas de Seguridad de San Sebastián, Goiburu (Andoain) y Santiomendi (Astigarraga); y el Refugio de fauna de Erkaitz-Aparrain-Sarobe.

EK\CV GAO-I-2015-07804

*4. Bidasoa-Oarsoaldeako zainpeko ehiza-eremua.*

Errenteria, Hondarribia, Irun, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalerrietako lurrak dira. Muga hauek ditu: Iparraldean, Kantauri itsasoa; Ekialdean, frantziar estatua; Hegoaldean, Nafarroa; mendebaldean, Donostialdeko zainpeko ehiza-eremua. Ehiza-lekua, iparraldean, A-8 autobideak zeharkatzen du. Bidasoa ibaia du ekialdeko muturrean eta Oiartzun ibaia ehiza-leku barrutik igarotzen da.

Bere mugen barruan daude Aiako Harria Parke Naturalaren zati bat; 2120016 Aiako Harria, ES2120014 Ulia, ES 2120017 Jaizkibel, ES 2120018 Txingudi-Bidasoa Kontserbazio Bereziko Eremuak; ES 0000243 Txingudi Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua; Txingudiko eta Pasaiko Segurtasun esparruak; eta Añarbe urtegiko Fauna Babeslekua.

*5. Debagoieneko zainpeko ehiza-eremua.*

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Legazpi, Leintz-Gatzaga, Oñati eta Soraluze udalerrietako lurrak dira. Muga hauek ditu: Iparraldean, Debabarreneko zainpeko ehiza-eremua; Ekialdean, Urola Erdiko, Usurbe-Irimoko eta Zegama-Segura-Zerain-Mutiloko zainpeko ehiza-eremuak; Mendebaldean, Bizkaia; Hegoaldean, Araba. Ehiza-lekuan barrena pasatzen da Deba ibaia.

Bere mugen barruan daude Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren zati bat; 2120016 Aiako Harria, ES 2120002 Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremua, Udalaitz, Aloñamendi-Orkatzategi-Urbia eta Aizeleku Fauna Babeslekuak eta Barrendiola eta Aixola urtegietako Fauna Babeslekuak.

*6. Urola Erdiko zainpeko ehiza-eremua.*

Azkoitia, Azpeitia eta Beizama udalerrietako lurrak dira. Ehiza-lekuan barrena Urola ibaia igarotzen da. Muga hauek ditu: Iparraldean, Debabarreneko eta Urola Kostako zainpeko ehiza-eremuak; Ekialdean, Tolosako zainpeko ehiza-eremua; Hegoaldean, Usurbe-Irimoko zainpeko ehiza-eremua –horren eta Mendebaldean, Debabarreneko eta Debagoieneko zainpeko ehiza-eremuak.

Bere mugen barruan daude Ibai-eder urtegiko Fauna Babeslekua eta 2120003 Izarraitz Kontserbazio Bereziko Eremuaren zati bat.

*7. Tolosaldeko zainpeko ehiza-eremua.*

Albistur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Villabona, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Irura, Leaburu, Lizartza, Orexa eta Tolosa udalerrietako lurrak dira. Muga hauek ditu: Iparraldean, Urola Kostako eta Donostialdeko zainpeko ehiza-eremuak; Ekialdean, Nafarroko Foru-Erkidegoa; Hegoaldean, Goierriko zainpeko ehiza-eremua; Mendebaldean, Urola Erdiko zainpeko ehiza-eremua. Ehiza-lekuan barrena pasatzen dira N-1 errepidea eta Oria eta Araxes ibaiak.

Bere mugen barruan daude Aralar Parke Naturala eta Leitzaran ibaiko Biotopo Babestua; ES 2120008 Ernio-Gatzume, ES212005 Alto Oria, ES2120012 Araxes eta ES2120013 Leitzaran Ibaia/Río Leitzaran Kontserbazio Bereziko Eremuak; ES2120011 Aralar Batasunaren Garratzizko Lekua, Añi (Gaztelu, Lizartza), Errotaran (Gaztelu, Lizartza eta Orexa) Fauna Babeslekuak eta Aralarreko Fauna Babeslekuaren zati bat (Amezketa eta Tolosako zatiak).

*8. Goierriko zainpeko ehiza-eremua.*

Abaltzizketa, Altzaga, Baliarrain, Gainza, Ikaztegieta, Lazkao, Legorreta, Olaberria, Orendain, Zaldibia udalerrietako eta Enirio-Aralar Mankomunitateko lurrak dira. Muga hauek ditu: Iparraldean. Tolosaldeko zainpeko ehiza-eremua; Hegoaldean, Ataungo zainpeko ehiza-eremua eta Nafarroko Foru-Erkidegoa; Mendebaldean, Idiazabalgo eta Usurbe-Irimoko zainpeko ehiza-eremuak. Ehiza-lekuan barrena pasatzen dira Ibiur, Zaldibia eta Agauntza ibaiak, Oria ibaiaren adarrak.

*4. Zona de caza controlada de Bidasoa-Oarsoaldea.*

Terrenos pertenecientes a los términos municipales de Errenteria, Hondarribia, Irun, Lezo, Oiartzun y Pasaia. Limita al Norte con el Mar Cantábrico, al Este con Francia, al Sur con Navarra y al Oeste con la Zona de Caza Controlada de Donostialdea. Es atravesada en su sector septentrional por la autopista A-8. El río Bidasoa limita su extremo oriental y el río Oiartzun discurre por su interior.

Dentro de sus límites se sitúa parte del Parque Natural de Aiako Harria; las Zonas Especiales de Conservación ES 2120016 Aiako Harria, ES2120014 Ulia, ES 2120017 Jaizkibel, ES 2120018 Txingudi-Bidasoa; la Zona de Especial Protección para las Aves ES 0000243 Txingudi; las Zonas de Seguridad de Txingudi y de Pasaia; y el Refugio de fauna del embalse de Añarbe.

*5. Zona de caza controlada de Alto Deba.*

Terrenos pertenecientes a los términos municipales de Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Legazpi, Oñati y Soraluze. Limita al Norte con la Zona de Caza Controlada de Bajo Deba; al Este con las Zonas de Caza Controlada de Urola Medio, Usurbe-Irimo y Zegama-Segura-Zerain-Mutiloa; al Oeste con Bizkaia y al Sur con Araba. Es atravesada por el río Deba.

Dentro de sus límites se sitúa parte del Parque Natural Aizkorri-Aratz y del Lugar de Importancia Comunitaria ES 2120002 Aizkorri-Aratz; los Refugios de fauna de Udalaitz, Aloñamendi-Orkatzategi-Urbia, Aizeleku, y de los embalses de Barrendiola y Aixola.

*6. Zona de caza controlada de Urola Medio.*

Terrenos pertenecientes a los términos municipales de Azkoitia, Azpeitia y Beizama. Por su interior discurre el río Urola. Limita al Norte con las Zonas de Caza Controlada de Bajo Deba y Urola Costa; al Este con la Zona de Caza Controlada de Tolosaldea; al Sur con la Zona de Caza Controlada de Usurbe-Irimo y al Oeste con las Zonas de Caza Controlada de Bajo Deba y Alto Deba.

Dentro de sus límites se sitúa el Refugio de fauna del embalse de Ibai-eder y parte de la Zona Especial de Conservación ES 2120003 Izarraitz.

*7. Zona de caza controlada de Tolosaldea.*

Terrenos pertenecientes a los términos municipales de Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Villabona, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Irura, Leaburu, Lizartza, Orexa y Tolosa. Limita al Norte con las Zonas de Caza Controlada de Urola Costa y Donostialdea, al Este limita con la Comunidad Foral de Navarra, al Sur con la Zona de Caza Controlada de Goierri, y al Oeste limita con la Zona de Caza Controlada de Urola Medio. Es atravesada por la carretera N-1 y por los ríos Oria y Araxes.

Dentro de sus límites se sitúa parte del Parque Natural de Aralar y del Biotopo Protegido de Río Leizaran; las Zonas Especiales de Conservación ES 2120008 Ernio-Gatzume, ES212005 Alto Oria, ES2120012 Araxes y ES2120013 Leitzaran Ibaia/Río Leitzaran; el Lugar de Importancia Comunitaria ES2120011 Aralar, los Refugios de fauna de Añi (Gaztelu, Lizartza), Errotaran (Gaztelu, Lizartza y Orexa) y parte del Refugio de fauna de Aralar (la parte correspondiente a Amezketa y Tolosa).

*8. Zona de caza controlada de Goierri.*

Terrenos pertenecientes a Abaltzisketa, Altzaga, Baliarrain, Gaintza, Ikaztegieta, Lazkao, Legorreta, Olaberria, Orendain, Zaldibia y Mancomunidad de Enirio-Aralar. Limita al Norte con la Zona de Caza Controlada de Tolosaldea; al Sur con la Zona de Caza Controlada de Ataun y la Comunidad Foral de Navarra; y al Oeste limita con las Zonas de Caza Controlada de Idiazabal y Usurbe-Irimo. Es atravesada por los ríos Ibiur, Zaldibia y Agauntza, afluentes del Oria.

EK\CV GAO-I-2015-07804

Bere mugen barruan daude Aralar Parke Naturala eta ES212005 Alto Oria Kontserbazio Bereziko Eremua, ES2120011 Aralar Batasunaren Garratzizko Lekua; Lareo eta Ibiur urtegietako Fauna Babeslekuak eta Aralarreko Fauna Babeslekuaren zati bat (Zaldibia, Abaltzisketa eta Enirio-Aralarreko zatiak).

*9. Zegama-Segura-Zerain-Mutiloko zainpeko ehiza-eremua.*

Mutiloa, Segura, Zegama eta Zerain udalerrietako lurrak dira. Muga hauek ditu: Iparraldean, Usurbe-Irimoko zainpeko ehiza-eremua; Ekialdean, Idiazabalgo zainpeko ehiza-eremua; Hegoaldean, Araba eta Gipuzkoako Partzuergo Orokorraren Ehiza Barrutia eta Mendebaldean, Debagoieneko zainpeko ehiza-eremua. Ehiza-lekuan barrena pasatzen da Oria ibaia.

Bere mugen barruan daude Aitzgorri-Aratz Parke Naturala, ES2120002 Aizkorri-Aratz Batasunaren Garrantzizko Lekua eta ES2120005 Alto Oria Kontserbazio Bereziko Eremua; Añabasoko Fauna Babeslekua, Troya urtegiko Fauna Babeslakuaren zati bat eta deklaratutako hiru segurtasun esparruak Zerainen.

*10. Idiazabalgo zainpeko ehiza-eremua.*

Idiazabal udalerriko eta Gipuzkoako Partzuergo txikiko lurrak dira. N-1 errepideak luzetara zeharkatzen du. Muga hauek ditu: Iparraldean, Usurbe-Irimoko zainpeko ehiza-eremua; Ekialdean, Ataungo zainpeko ehiza-eremua; Hegoaldean, Nafarroko Frou-Erkidegoa eta, Mendebaldean, Zegama-Segura-Zerain-Mutiloko zainpeko ehiza-eremua.

Bere mugen barruan deklaratutako hiru segurtasun esparruak daude Zerainen.

*11. Ataungo zainpeko ehiza-eremua.*

Ataungo udalerriko lurrak dira. Muga hauek ditu: Iparraldean, Goierriko zainpeko ehiza-eremua; Hegoaldean, Nafarroko Foru-Erkidegoa eta, Mendebaldean, Idiazabalgo zainpeko ehiza-eremua. Eremuaren barruan Agauntza ibaia igarotzen da.

Bere mugen barruan daude Aralar Parke Naturalaren zati bat, eta Batasunaren Garrantzizko Lekuaren eta ES2120005 Oria Garaia/Alto Oria Kontserbazio Bereziko Eremuaren zati bat.

*12. Usurbe-Irimoko zainpeko ehiza-eremua.*

Arama, Beasain, Ezkio-Itxaso, Gabiria, Itsasondo, Ordizia, Ormaiztegi, Urretxu eta Zumarraga udalerrietako lurrak dira. Muga hauek ditu: Iparraldean, Urola Erdiko zainpeko ehiza-eremua; Ekialdean, Goierriko zainpeko ehiza-eremua; Hegoaldean, Idiazabalgo eta Zegama-Segura-Zerain-Mutiloko zainpeko ehiza-eremuak eta, Mendebaldean, Debagoieneko zainpeko ehiza-eremua. Ehiza-lekuko Iparraldeko muturrean barrena Estanda ibaia igarotzen da.

Bere mugen barruan daude ES2120005 Oria Garaia/Alto Oria Kontserbazio Bereziko Eremuaren zati bat, Arriaran urtegiko fauna Babeslekua eta Aizelekuko eta Troya urtegiko (Gabiriko zatia) fauna Babeslekuen zati bat.

Dentro de sus límites se sitúa parte del Parque Natural de Aralar y de la Zona Especial de Conservación ES212005 Alto Oria, el Lugar de Importancia Comunitaria ES2120011 Aralar; los Refugios de fauna de los embalses de Lareo e Ibiur y parte del Refugio de fauna de Aralar (la parte correspondiente a Zaldibia, Abaltzisketa y Enirio-Aralar).

*9. Zona de caza controlada de Zegama-Segura-Zerain-Mutiloa.*

Terrenos pertenecientes a los términos municipales de Mutiloa, Segura, Zegama y Zerain. Limita al Norte con la Zona de Caza Controlada de Usurbe-Irimo; al Este con la Zona de Caza Controlada de Idiazabal; al Sur con el Coto de la Parzonería General de Araba y Gipuzkoa; y al Oeste con la Zona de Caza Controlada de Alto Deba. Es atravesada por el río Oria.

Dentro de sus límites se encuentran parte del Parque Natural de Aizkorri-Aratz, del Lugar de Importancia Comunitaria ES2120002 Aizkorri-Aratz y de la Zona Especial de Conservación ES2120005 Alto Oria; el Refugio de fauna de Añabaso, y parte del Refugio del embalse de La Troya; y tres zonas designadas Zona de Seguridad en Zerain.

*10. Zona de caza controlada de Idiazabal.*

Terrenos pertenecientes al término municipal de Idiazabal y a la Parzonería menor de Gipuzkoa. Es recorrido longitudinalmente por la carretera N-1. Limita al Norte con la Zona de Caza Controlada de Usurbe-Irimo; al Este con la de Ataun; al Sur con la Comunidad Foral de Navarra; y al Oeste con la Zona de Caza Controlada de Zegama-Segura-Zerain-Mutiloa.

Dentro de sus límites se encuentran tres zonas designadas Zona de Seguridad en Idiazabal.

*11. Zona de caza controlada de Ataun.*

Terrenos pertenecientes al término municipal de Ataun, que limita al Norte con la Zona de Caza Controlada de Goierri, al Sur con la Comunidad Foral de Navarra y al oeste con la Zona de Caza Controlada de Idiazabal. Por su interior discurre el río Agauntza.

Dentro de sus límites se encuentran parte del Parque Natural de Aralar; y parte del Lugar de Importancia Comunitaria ES2120011 Aralar y de la Zona Especial de Conservación ES2120005 Oria Garaia/Alto Oria.

*12. Zona de caza controlada de Usurbe-Irimo.*

Terrenos pertenecientes a los términos municipales de Arama, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Itsasondo, Ordizia, Ormaiztegi, Urretxu y Zumarraga. Limita al Norte con la Zona de Caza Controlada de Urola Medio; al Este limita con la Zona de Caza Controlada de Goierri; al Sur con las Zonas de Caza Controlada de Idiazabal y Zegama-Segura-Zerain-Mutiloa; y al Oeste limita con la de Alto Deba. En su extremo meridional discurre el río Estanda.

Dentro de sus límites se encuentran parte de la Zona Especial de Conservación ES 2120005 Oria Garaia/Alto Oria; el Refugio de fauna del embalse de Arriaran y parte de los Refugios de Aizeleku y del embalse de La Troya (la parte correspondiente a Gabiria).

EK\CV GAO-I-2015-07804